

2019-3-11

PRENTSA OHARRA

## INPLIKATUTAKO ERAGILE GUZTIEN ARTEAN ADOSTUTAKO ESKOLA-JANTOKI EREDU BERRI BATEN ALDEKO APOSTUA EGITEN DU EHIGE-K

EHIGEek begi onez ikusten du eskola-jantokien jarraipen batzordearen aktibazioa, kudeaketa eredu desberdinak aztertzeko aukera emango bait du. Izan ere, hainbat aldiz salatu dugun moduan, egungo eredia zaharkituta dago eta ez ditu asebetetzen eskola-komunitateak.

Kudeaketa eredu berri oro printzipio hauetan oinarritu beharko litzateke, beste batzuen artean:

- Ikastetxearen **autonomia** erabakitzeko nola kudeatu nahi duen eskola-jantokia: ikastetxeak erabaki behar du OOGaren bidez, nolako kudeaketa eredia nahi duen jantokiarentzat.
- **Ikastetxeko antolaketa**, OOG eta Jantoki-batzordearen bidez, espazioaren izaera pedagogikoa bermatzeko: jantokiak tresna pedagogiko oso baliagarria da eta ikastetxeak zehaztu dituen helburuekin bat egin behar du (autonomia eta berdintasuna, ingurugiroa zaindu, eta abar).
- **Eusko Jaurlaritza edo beste erakunde publikoen erantzukidetasuna**: espazioaren kudeaketa publikoaren bermea, osasun bermeak, erantzukizun zibila, lan-baldintza duinak, eta abar. Ikastetxe publiko bateko jantokiak publiko izaten jarraitu behar du.
- **Eredu osasungarria**, hezkuntza-irizpideetan oinarritua, ingurugiroarekiko errespetuan (Km 0) gure inguruko garapen soziala eta ekonomikoa sustatuko duena.

Dei bat egiten diegu alde guztiei orain arte bezala elkarlanean aritzeko helburu hori lortu ahal izateko.